



María Mur:

“Considero importante sacar el discurso de las salas de arte a la calle”

Texto: Josune Vélez de Mendizabal

Fotos: Javi Atxa, Olaia Miranda

Han pasado diez años desde que María Mur Dean (Iruña, 1977) dejó su ciudad de origen, Gasteiz, para hacer de Bilbo su residencia y lugar de trabajo. Los estudios de sociología que cursó en la Universidad de Deusto le pusieron en contacto con el mundo del arte; y hoy en día esta joven productora de arte compagina la dirección del espacio Consonni con su participación en el colectivo Pripublikarrak.

Gaur egun Bilboko Consonni aretoaren zuzendaria zara. Artea duzu lanbide baina ez zenuen artearekin zerikusirik duen karrerarik ikasi. Nolatan zaude egun artearen munduarekin harremanetan?

Consonni ez da areto bat. Ezleku bat baizik. Hau da, bulego batetan egiten dut lan, ez ditugu erakusketarik egiten eta ez da ezinbestekoa arte-objektu baten emaitza. Consonni-n artea nola ulertzen den zerikusi handia dauka nire formazioarekin, soziologia, alegia. Artea Consonnin, gizarte garaikidea aztertzeke era bat da. Artistak gonbidatzen ditugu gaur egungo gizartearen tresna ezberdinak erabiliz (moda, politika, komunikabideak...) arte ekoizpena gara dezaten (tipografien enkantea, telebistako programa, moda desfilea...) etab. Ez dute arte itxurarik eta arte bezala identifikatzen zaila dira kontzeptuan oinarritutako arte ekoizpenak baitirelako. Garrantzitsuena ekoizpen bakoitzaren atzean dagoen ideia da, gero nola garatu, zein forma hartuko duen eta zein leku behar duen artistekin akordatzen diren gauzak dira.


Soziologiako ikaslea nintzenean Guggenheim-ean karrera bukatzeko tesina egiten nengoela, Franck Lacarde Consonniko zuzendaria eta sortzailea zenari eginiko elkarrizketak arteari buruz neukan ikuspegi tradizionala aldatu zidan. Hurrengo urtean Gestio Kulturalerako Masterra egin nuen eta berak ikasleak praktikan behar zituzenez bertan hasi nintzen. 2000. urtean Consonni-ko langile nintzen. Franck-ek iaz utzi zuen zuzendaritza eta ondorioz nik hartu nuen ardura. Neketsua eta zaila da askotan artean egotea lanean baita halako arte egitura pribatu eta txikia aurrera eramatea ere. Baina aldi berean nire proiektu pertsonala bihurtu da eta Consonni aurrera eramateko aukera izugarria iruditzen zait. Consonni bizirik baitago eta dagoeneko proiektuak ditugu martxan, hala nola, Ibon Aranberri artistaren egitasmo berria ari gara ekoizten Alemaniako Documenta arte azokan aurkezteko; Iratxe Jaio eta Klaas Van Gorkumekin hasi berri gara lanean Barakaldon egitasmo bat gauzatzeko; Artxandako parkean bisita gidatu batzuk antolatuko ditugu, eta, besteak beste, Lutxo Egiaeren lehenengo eleberria gaztelaniaz aterako dugu.

Consonni aretoaz gain, Pripublikarrak izeneko kolektiboaren partaide eta sortzaileetako bat zara. Nola gauzatu zen? Zertan datza?

2005 urtean Saioa Olmo artistak, eta lagunak, deitu ninduen Rekalde Aretoan Arakisen “Publiko guztientzat” izeneko erakusketa orokorren parte hartzeko. Hasiera batean ezetz esan nuen, ez dudalako nire burua artista bezala ikusten. Hala ere, bilera batera joatea erabaki nuen. Han Aiora Kintana eta Olaia Miranda artistak, eta Oihane Ruiz arkitektoa ezagutu nituen. Gustura aritu ginen eztabaidan. Ondorioz, eta modu espontaneoan, gure lehen egitasmoa izango zena gauzatu genuen, “Optikak”. Ez genuen elkarte bilakatuko ginenik ezta hainbeste ekoizpen ezberdinak sortuko genituenik ere imaginatzen, baina horrela izan da... Pripublikarrak izena hitz-joko bat da. Pribatua eta publikoa den horren tartean, pripublikarrek akzio, errepresentazio eta ahalmen eremu berri bat sortzen dute, esfera publiko eta pribatuaren banaketa hertsia eta tradizional baten aurrean, hierarkiak hautsiz. Botereak generoa izateari uzten dienez bitarte horretan sortzen da, hain justu, pripublikar izatearen mitoak.

“El arte y el feminismo son maneras de hacerse preguntas. Las estructuras de la sociedad son inventadas y por lo tanto cambiantes”.

"En el proyecto "Zergatiak" preguntamos por las situaciones que llevan a la diferencia entre géneros mediante documentos que exhibimos en una pared".



"La entrevista que mantuve con Franck Lacarde, cuando estuve preparando la tesina, hizo que cambiara mi punto de vista tradicional sobre el arte".

Pripublikarrak-ek generoaren inguruko egitasmoak lantzea du helburu. Zein proiektu egin dituzue orain arte?

"Optikak" 35 begiradek osatzen dute. 35 emakumeren iritzi eta gogoetak biltzen ditu sexualitatearen, espazio publikoaren, familiaren nahiz generoaren inguruko beste zenbait gairen inguruan argazkia formatuarekin. "Zergatik" egitasmoaren bidez, berriz, generoen arteko ezberdintasun egoeren zergatiak galdetzen da horman jarritako eranskinen bidez. Zergatien ideia beste modu batetan garatuko dugu irailean Manresan Idensitat arte programaren barruan. Gustatzen zaiguna gure ekoizpenetan talde sozial eta kultural ezberdinekin egotea da, elkarrekin egoteko lanean, jende ezberdina ezagutzeko eta lan egiteko modu ezberdinetan murgiltzeko. Egindako azken ekoizpena "Shift Ctrl. El miedo en la construcción del género" Sevillan Panel de Control erakusketara orokorrerako Zemos98 jaialdiaren barnean izan zen. Kontrol subjektiboaren ideia aztertzeko, beldurraren zentzutik abiatu ginen. Horretarako hango zenbait elkarteekin bildu ginen (Lilitú asamblea feminista, Mujeres de negro, Precari@s en movimiento, Daira, Santi Eraso, Ana Távora...) eta bi irrati programa garatu genituen: bat, Fluido Rosan (RNE3) eta bestea, Tas Tas irrati librean). Pripublikarrekin erakusketara aretoetan sartzen naiz, Consonni-rekin ez bezala. Horregatik erakusketara aretoetan gertatzen denaz gain beti diskurtsoa hirira ateratzean saiatzen gara. Horrela izan da gure ekoizpen guztietan.

Horien artean, Galleterena dago. Bertan emakumearen lana nabarmendu nahi izan duzue, memoria historikoaren errekonstruzioa lantzen duzue baita egungo emakumearen egoeraren inguruko eztabaida piztu ere. Kontatu pixka proiektua...

Bilboko Udala jarri zen kontaktuan gurekin Maite Ibáñez eta Marta Zabala historiagileak idatzitako liburua "Las Galleteras de Deusto. Mujer y trabajo en el Bilbao Industrial" aurkezteko egitasmoa egiteko. Guk horretaz gain ekoizpen zabalago bat garatu dugu: www.galleteras.net web gunea, sei galleterekin elkarrizketak egin, berrehun bat argazki bilduz eta Aranzazu Callejaren musikarekin "Galleteras. Oroimen Bizia" bideoa egin dugu. "Galleterak. Oroimen bizia". Proiektu kultural honek emakumeen lana, emantzipazioa eta borroka sinbolizatzen duen gremio baten memoria historikoa berreskuratzen du.

Intrahistoria pertsonalen bidez Bilboko hiriaren eraiketan lagundu zuten emakumeak antzeman eta gogorarazi nahi ditu. Emakume hauek egindako ahalegin, lan eta eskabideak Deustuko Erriberaren garapen industrialaren ikur bilakatu dira. Emakumeak nagusi izan ziren, zirga, bakailautegi, "jute" fabrika, kalamu trentza, bela joste eta bestelako utzikintzako lanpostu laguntzaileetan. Proiektu honek, aintzat hartu nahi du emakume guzti hauek eginiko lana galleteren kasua eredu izanik. Hortaz, egungo lan eskubideak hobetzeko ahaleginetan dauden emakumeei tarte emango zaie, iragana ezagutzuz gaur eguna aktibatzea xede duen proiektua baita.

Hortaz eta amaitzeko, nola laburtuko zenuke zuk artea eta emakumearen kontzeptuez duzun ikuspegia?

John Holloway-k esaten duen modura mugiezina den horren zimenduak ez-egonkortzen duten urradurak lor ditzakegu. Gizarte egiturak asmatuikoak diren heinean aldagarriak dira eta. Artea eta feminismoa galderak egiteko moduak dira. Bai feminismoa bai artea galderak topatzeko bideak dira. Gauzak aldatzea? Agian arteak ez du lortuko baina gutxienez galderak sortzen ditu. Gilles Deleuzek zioenaz, garrantzitsuena ez dira helmugak baizik eta puntu horien artean dagoena.